


## DBUSEk berriro ere bidaiarien marka historikoa lortu du 2011. urtean

DBUSEn zerbitzuetan autobusean bidaiatu dutenen kopurua **29.216.698**koa izan da 2011. urtean. Behin behineko datuak dira, azkenekoak kontabilizatzearen zain. Kopuru horrek marka historikoa ekarri du berekin, izan ere lehen aldiz 29,2 milioi bidaiariak gainditu bait dira Donostia Hiriko autobusetan, 200.000 bidaiari baino gehiagoko handitzea aurreko urtearekin alderatuz.

Zazpigarren urtez jarraian, bidaiarien guztizko kopurua hazi egin da. Datu hau bikaina da, hiri garraio enpresek orokorrean bidaiarien murriztea jasaten ari bait dira. Zazpi urteotan, Donostian autobusa erabiltzen dutenen kopurua 3,2 milioi lagunetan handitu da, %12 baino gehiago. Sektoreko datuen arabera, garraio publikoko bidaiarien kopurua beheratu egin da %5eko batzabestekoarekin Espainian denboraldi honetan.



Datu horiek kontuan hartuta eta beste hiri batzuekin alderatuta, Donostia lehen postuan dago autobusen erabilerari dagokionez. Donostiar bakoitzak, urtean, autobusean 158 bidaia egiten ditu batez beste, Europar zifrarik altuenetako bat.

2011. urtean gehien erabili den linea 28-AMARA-OSPITALEAK izan da; guztira, 4.790.050 bidaiari izan ditu; horren jarraian, 13-ALTZA linea aipatu behar da, 3.794.560 bidaiari izan baititu, eta 5-BENTABERRI linea, 3.061.246 bidaiarik erabili baitute.

LÍNEA	2011 urtea
5-BENTA-BERRI	3.061.246
8-GROS-INTXAURRONDO	822.495
9-EGIA-INTXAURRONDO	1.236.570
13-ALTZA	3.794.560
14-BIDEBIETA	1.330.835
16-IGELDO	500.919
17-GROS-AMARA	1.355.198
18-SEMINARIO	671.278
19-AIETE	350.659
21-MUTUALIDADES-ANOETA	593.995
23-ERRONDO-AIETE	312.513
24-ALTZA-GROS-ANTIGUO	972.503
25-B.BERRI-AÑORGA	1.084.175
26-AMARA-MARTUTENE	1.524.776
27-ALTZA-INTX.-ANTIGUO	962.272
28-AMARA-OSPITALEAK	4.791.050
29-INTXAURRONDO SUR	1.088.517
31-INTXAUR.-OSPITALEAK-ALTZA	904.696
32-PUIO-ERRONDO	287.556
33-LARRATXO-INTXAURR.-BERIO	1.448.812
35-ARRIOLA-ANTIGUO-OSPITALEAK	147.627
36-SAN ROQUE-ALDAKONEA	465.325
37-RODIL-ZORROAGA	322.543
38-TRINTXERPE-ALTZA-MOLINAO	98.733
39-URGULL	10.835
40-GROS-ANTIG-IGARA	556.607
41-MARTUTENE-EGIA-GROS	309.016
B1-BENTABERRI-AÑORGA	38.149
B2-AIETE-BERABERA	11.129
B3-EGIA-INTXAURRONDO	27.247
B4-AMARA-MARTUTENE	40.808
B6-ALTZA	34.655
B7-IGELDO	2.094
B8-MIRAC.-BBERRI-SEMINARIO	18.075
B9-AMARA-ERRONDO-PUIO	14.526
B10-ZUBIAURRE-BIDEBIETA-BV	24.704

Erabiltzaileek autobusa gehien erabili duten hilabeteak hauek izan ziren: martxo, 2.592.816 bidaiarirekin, abuztua 2.538.936 bidaiarirekin, maiatza 2.502.406 bidaiarirekin eta uztaila 2.500.016 bidaiarirekin.

DBUSEk eskainiriko zerbitzuak 2011 urtean aldaketa gutxi izan ditu aurreko urtekoarekin alderatuz, progresiboki autobusaren erabilera handitu duena azken urteotan lineetan eginiko aldaketa eta hobekuntzak izan direlarik zalantzarik gabe. Zehazki, 5-Benta Berri eta 31-Intxaurre-Ospitaleak-Altza lineek 75.108 eta 102.177 bidaiari gehiago izan dituzte, hurrenez hurren, aurreko urtearekin alderatuz.

Urte osoan autobusaren erabilerarik handieneko egunak hauek izan ziren: abenduak 21 (San Tomas eguna), 124.028 bidaiari izan baitzituen eta horrek DBUSEk egun bakarrean lortutako bidaiarien marka absolutua ezarri zuen; jarraian, urtarrilak 19 (San Sebastian egunaren bezpera), 116.542 bidaiarirekin; abuztuak 19, 106.261 bidaiarirekin; abuztuak 18, 103.429 bidaiarirekin eta uztailak 29 (Bon Jovi Kontzertua) 103.368 bidaiarirekin.

Nola handitu den azken urteotako lanegunetako bidaiarien kopurua azpimarratzekoa da, 92.000 bidaiariak nabarmen gainditu bait dira. Autobusaren batez besteko erabilera hazi da lanegunetan (92.870 bidaiari/egunean; aurreko urteko kopurua 91.889 bidaiari/egunean izan zen) zein larunbat (68.116 bidaiari/egunean; aurreko urteko kopurua 67.804 bidaiari/egunean izan zen) eta jaiegunetan (41.483 bidaiari/egunean; aurreko urteko kopurua 41.219 bidaiari/egunean izan zen).

Gaueko zerbitzuak 211.387 bidaiarik erabili baitituzte.

Gainera, nabarmendu beharrekoa da hileko txartelen ezarpenak izan duen arrakasta handia; izan ere, horien bidez 2.650.674 bidaia egin dira eta aurreko urteko datuak % 6,4 hazi dira horrenbestez.